

# Ekuazio kimiko motak

Erreakzio-mota		Eskema orokorra	Adibideak
<b>1 Sintesia</b>	Bi substantzia edo gehiago erreakzionatzen dute (bi erreaktibo edo gehiago) produktu bakarra emateko.	$A + B \rightarrow AB$	Amoniakoaren sintesia $N_2 + 3 H_2 \rightarrow 2 NH_3$
<b>2 Deskonposaketa</b>			Erreaktibo batek bi edo produktu gehiago ematen ditu.
<b>3 Konbustioa (Errekuntza)</b>	Erreaktibo bat (konposatu organikoa gehienetan) oxigenoarekin konbinatzen da karbono dioxido eta ura emateko.	$\dots + O_2 \rightarrow CO_2 + H_2O$	Metanoaren konbustioa $CH_4 + 2 O_2 \rightarrow CO_2 + 2 H_2O$ Etanolaren konbustioa $C_2H_6O + 3 O_2 \rightarrow 2 CO_2 + 3 H_2O$


# Ekuazio kimiko motak

<b>4</b>	<b>Desplazamendua</b>	$AB + C \rightarrow AC + B$	Metala + azido erreakzioak
<p>Erreaktibo batek beste bat desplazatzen du konposatutik.</p> <p>Askotan hidrogenoarekin gertatzen da (hidrogenoa desplazatuta geratzen da).</p>			$Ca + 2 HCl \rightarrow CaCl_2 + H_2$ $2 Al + 6 HNO_3 \rightarrow 2 Al(NO_3)_3 + 3 H_2$

<b>5</b>	<b>Neutralizazioa</b>	azido + hidroxido $\rightarrow$ gatza + $H_2O$	$Ca(OH)_2 + 2 HCl \rightarrow CaCl_2 + 2 H_2O$
Azido eta hidroxidoa erreakzionatzen dute gatza eta ura produktuak emateko			$Al(OH)_3 + 3 HNO_3 \rightarrow Al(NO_3)_3 + 3 H_2O$

## Kontuan hartzeko azalpena

Doiketa burutzeko eta zein gatz emango duen jakiteko, ura nola eratzen den jakitea interesgarria da: hidroxidoaren OH taldeak eta azidoaren H atomoak elkartzen dira ura emateko.



Nola idatzi **ELEMENTUAK** ekuazio kimikoetan?

- Metaletan: elementua azpiindizerik gabe: Na, Fe, Cu, Al ...
- Ez-metal garrantzitsuenak:  $H_2$ ,  $O_2$ ,  $N_2$ ,  $Cl_2$ ,  $F_2$ ,  $Br_2$